

# TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN:

## IGORRE (IGORRE)

### 2016/06/28

**Kokalekua:** Kultur Etxea(Igorre)

**Iraupena:** 2 ordu eta 30 minutu

### Parte hartzaileak

Izena	Udalerrria	Elkarte/Erakunde/... /
Emilio Olibares Sorriketa	Lemoa	Lemoako Udala
Itsaso Bengoetxea Martinez	Igorre	Igorreko Udala
Borja Ruiz Huerta	Dima	Dimako Udala
Iñaki Unamuno	Igorre	Igorreko Udala
Asier García Artetxe	Areatza	Areatzako Udala
Jose Luis Madariaga	Areatza	Areatzako Udala
Nekane Intxaurtza Etxebarria	Dima	Dimako Udala
Aitor Uriguen	Arratia	Arratiako Udalen Mankomunitatea
Iñaki Barrenetxea	Lemoa	Arratiako Udalen Mankomunitatea
Mikel Iriondo	Dima	-
Izaskun Oyanguren	Zornotza	Zornotzako Udala
Jose Antonio Aurrekoetxea	Dima	Dimako Udala
M <sup>a</sup> Luz Yurrebaso Goioaga	Igorre	-

Izena	Udalerrria	Elkarte/Erakunde/... /
Josu Basozabal	Areatza	-
Andere Ortuzar	Igorre	Igorreko Udala (Zinegotzia)
Javi Arteaga	Dima	Dimako Udala (Zinegotzia)
Izkander Fernandez	Lemoa	Lemoako Udala (Zinegotzia)
Saioa Elejabarrieta	Lemoa	Lemoako Udala (Alkatea)
Amaiur Atutxa	Lemoa	-
Bigarren Ibarra	Zeanuri	-
Josune Arandia	Lemoa	Lemoa
Inazio Aldazabal	Lemoa	Lemoako Udala (arkitektoa)
Koldo Atutxa Apodaka	Igorre	Igorreko Udala (Zinegotzia)
Koldo Atutxa Gorostiaga	Igorre	-
Eider Ajuriagerra	Zeanuri	Zeanuriko Udala (Zinegotzia)
Aitor Etxebarria	Igorre	-
Beinat Anzola Uriarte	Igorre	Igorreko Udala (alkatea)
Galder Olibares	Igorre	-

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea

## Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Agirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru
Leire Zuazo Urkaregi	Inguru

## Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariek eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitartezko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrera proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

### LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

### Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
  - o Paisaia

- Ingurune fisikoaren antolamendua
- Klima aldaketa
- Babestutako Naturguneak
- Korredore ekologikoak
- Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
  - Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
  - Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
  - Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
  - Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
  - Hiriz hazkundera
  - Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
  - Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
  - Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - Bide-mugikortasuna
  - Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
  - Talde mugikortasun multimodala
  - Eredu logistikoa
  - Ura
  - Energia
- Zeharkako alderdiak
  - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
  - Lurraldeen arteko harremana
  - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Leirek:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Landutako ideiak post it-etan idatzi beharko dira (post it bat, ideia bat). Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

### Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

#### 1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

##### 1.1. Paisaia

- 1.1.1..Arratiako mediak eta basoak oso baliotsuak dira eremuko turismoa, nekazaritza eta bizi kalitatearentzako, beraz zaindu egin beharko lirateke eta zentzu horretan bideratu kudeaketa.
- 1.1.2.Paisaiak, antolamendu kanpoko eraikinetatik, babestu.
- 1.1.3.Bertako landaretza (zuhaitzak etab.) sustatu, adibidez pinadi bat bota ondoren birlandatzea bertako espeziekin egitera behartzea legen bitartez.
- 1.1.4.Azkeneko urteetan larregi eraiki da eta horrek paisaia kaltetu dau, beraz kontrol gehiago beharko litzateke.

##### 1.2. Babestutako naturguneak

- 1.2.1.Gorbea eta Urkiola batu parke bezala, eta babestutako eremua zabaldu (Baltzola babes barik dago.)
- 1.2.2. Kontuan izan zein erabiltzaile mota dauden lurzoru urbanezinean eta horren arabera legeak idatzi denen interesak kontuan hartzeko, adibidez Baltzolako kobetan, erabiltzaile mota desberdinak daude.
- 1.2.3.Koordinazio gehiago Gorbeiaiko parkea kudeatzen duten erakundeen artean. Koordinazio hori oso saila denez proposatzen da erakunde bakar batek kudeatzea.
- 1.2.4.Lurraldearen planifikazio orokorrago bat eta koordinazio handiago batez lurralde desberdinen artean (Adibidez Gorbeiaren kasuan)

- 1.2.5. Naturaguneen balioen inguruan informazio eta kontzientziazioa falta dago. Horrekin lotuta promozioa eta zabalkundea beharrezkoa da, zer dagoen babestuta eta zergatik jakiteko.
- 1.2.6. Hainbat naturgune daude baina euren artean ez dago loturarik, babesa hobetzeko.
- 1.2.7. Espezieen babeserako tresnak garatzea. Asko daude katalogatuta baina ez dago eurentzako plangintza bat.
- 1.2.8. Herritarren partehartzea indartu parke naturalen kudeaketan. Gaur egun parke barruan dauden herriek, askotan, erabakietatik aparte geratzen dira.

### 1.3. Korredore ekologikoak

- 1.3.1. Naturguneen arteko korridoreak sendotu.
- 1.3.2. Korridoreen arteko koordinazioa sustatu.
- 1.3.3. Azpiegiturak planifikatzerakoan korridoreak kontuan hartu.
- 1.3.4. Kaltetuta dauden gunek berreskuratzen saiatzea.

### 1.4. Azpiegitura berde integratua

- 1.4.1. Gorbeiaz gain badaude beste toki oso baliotsuak, Urkiola Bikotxgane Mandoia...haiek lotu beharko lirateke eta ibilbideak hobetu.
- 1.4.2. Ibai bazterrak berreskuratu ibilbideak egiteko.
- 1.4.3. Erabiltzaile guztiak izatea kontutan legeak egiterako orduan (Adibidez Baltzolako kobak)

### 1.5. ?

- 1.5.1. Uholdegarriak diren guneetan; errekak babestu eta tramitazioak erraztu eta praktikoagoak egin.

### 1.6.

## 2. Landa-ingurunea

### 2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

- 2.1.1. Balioan jarri 1. sektorea
- 2.1.2. Hurbileko kontsumoa eta ekoizpena sustatu, bultzatu. Eskola jantokiak, arlo pribatuan ere landuz bertoko produktuen kontsumoa. Zirkuito zarratuak
- 2.1.3. Ustiapenen bideragarritasuna sustatzeko laguntzak sustatu.
- 2.1.4. Baliabide naturalak turismoa sustatzeko erabiltzea (adibidez Pagomuturreko eremua). Balorean jarriz ibilbideak etab. Balioerantzi bat jarri eta jendea erakarri eremu ohietara.
- 2.1.5. Txabolen garapena murriztu/arautu goi mailako erakunde batetik.
- 2.1.6. Landa eremuan infraestruturak turistikoak garatzeko erraztasunak eman.

2.1.7. Nekazari gazteak bultzatu /lagundu.

2.1.8. Bertoko produktuak arlo pribatuan kontsumitzea sustatu.

2.1.9. Lurgabeko nekazariak eta lurzoru azpierzarritakoak elkarrekin harremanetan jarri.

2.1.10. Landa eremua mantentzeko tresnak zehaztu (basoak garbi mantendu, baso animalien superpopulazioa kontrolatu, etab.)

2.1.11. Ekoizle txikiak lagundu

2.1.12. Mendi eta baso ibilbideak sortu, mantendu eta ezagutzera eman, ohiekin lanpostuak sortuz.

## 2.2. Landa-ingurune antolamendu fisikoa

2.2.1. Lehen sektorerako erabilgarriak diren guneak babestu nekazaritza eta abeltzantzarako

2.2.2. Urbanizagarri moduan klasifikatuta daudenak aldatu eta nekazaritzara mugatu.

2.2.3. Babestu lur produktiboa “nekazaritza lurren babesa”

2.2.4. Landa eremu babesa modulatu errealitateak hobetu aztertuz. Adibidez PTS Agroforestalean dauden zenbait eremu (balio agrologiko altuko moduan izendatuta daudenak) dagoeneko guztiz artifizialitate daude, hauek hobeto begiratu beharko lirateke. Baita babestuta dauden eremuetan, baina haien inguruan egindako azpiegituren edo eraikuntzen ondorioz isolatuta geratu direnak, eraldagarri izatea.

2.2.5. Bertako basoak berreskuratu egin behar dira eta administrazioa eredu izan beharko litzateke. Herri Basoetan kudeaketa jasangarri bat sustatuz, baita ere baso pribatuei ematen zaien laguntzak aztertu, bertako landaretza/espezieak sustatzeko.

## 3. Hirigunea.

### 3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

3.1.1. Gutxiago eraiki eta gehiago erabili dagoena

3.1.2. Errehabilitazioa sustatu

3.1.3. Tresnak jakiteko zenbat etxebizitza hutsak dauden

3.1.4. Etxebizitzen gutxiengo dentsitatea handitu batez ere herriguneetan.

3.1.5. Baserri zaharrak eta herrietako alde zaharretan dauden zenbait eraikin, ondare moduan daudenak katalogatuta, birgaitzerakoan legeak ezartzen dituzten mugei eta irizpideei lotuta daude, eta irizpide ohiei erantzuna emateko baliabideak beharko lirateke. Denon ondarea bada denok arduratu beharko ginateke. Erraztasunak jartzea, legeak eta diru-laguntzak.

### 3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

3.2.1. Industria guneak eskualde mailan planifikatzea, eskualde mailako hausnarketa baten bitartez, eta onurak banatzeko tresnak (IAE) ere definitzea.

3.2.2. Koordinazioa baita ere beste azpiegituretan (aisialdia, kultura, kirola..) eta kontuan hartu garraioak duen garrantzia azpiegituren banaketan. Garraio publiko eraginkor bat, azpiegituren bikoizketak ekiditeko.

3.3. Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak

3.4. Hiri hazkundera / Egoitza kuantifikazioa

3.4.1. Etxebizitza minimoaren muga kendu.

3.4.2. Zergatitik onartu da bizitegi kuantifikaziorako behin betiko dekretua orain eztabaidagarria den gai bat izanik? Edozein modutan minimoak ez dira ulertzen. Eskualde bakoitzak edo herri bakoitzak erabaki beharrekoa dela uste da.

3.4.3. Etxebizitza hutsen erabilera ahalbidetu eta kuantifikatu.

3.4.4. Bakoitzak nahi dituen etxebizitza beste eskuratzeko eskubidea dauka eta bere etxebizitza nahi duen moduan (hutsik ala beteta) izateko baita ere.

3.4.5. "Esponjamiento" fenomenoak ekiditeko neurriak hartu.

3.4.6. Etxebizitza berriek eraikitzeari alternatibak ematea (alokairuak).

3.4.7. HAPOak idazteko diru-laguntzak ematea.

3.4.8. Koordinazio handiagoa lurralde antolamenduan zer esana duten administrazioen artean eta idazten diren lurralde antolamendurako tresnen artean (HAPO, PTPT, PTS..) gero kontraesanak ez izateko. Goi mailako tresnetan ezartzen diren irizpideak isla izan dezaten besteetan.

3.5. Mugako herriak

3.5.1. Gertu dauden herrietako planen eta araudien koordinazioa bultzatu. Irizpide berdinak eta ez kontraesanak (Adibidez Bedia-Lemoa). Oreka sustatu HAPOak idazterakoan.

3.5.2. Infrastrukturen bikoiztea ekiditu, garraioa publikoa hobetuz.

3.5.3. Azpiegiturek optimizatu.

4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturek

4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Arratian bidegorrien proiektuak gauzatu eta hauek herrien arteko loturak izatea.

4.1.2. Diseinatzen diren ibilbideak aisialdirako bakarrik ez izatea, egunerokotasunerako beharrak betetzeko diseinatzea baita ere

4.1.3. Bidegorriak herri barruko oinezko mugikortasuna hobetzeko baita ere.

4.1.4. Arratian oinezkoentzako herri arteko bideak landu.

4.1.5. Kotxearen erabilera murriztu.

4.1.6. Azpiegituren dispersioa kontrolatu hirigintzan



4.1.7. Tele-lana sustatu edo etxetik gertuko lana sustatu, azpiegituren saturazioa ekiditeko eta gastu gutxiago izateko.

#### 4.2. Bide-mugikortasuna

4.2.1. Garraio bidearen arazoa N-240. Dagoen kolapsoa ekiditeko, trenera lanzaderak planteatu.

4.2.2. Garraio bereziak sortzen dituzten arazoei konponbide bat ematea (arautu ordutegi bat edo beste ibilbide batzuk erabiliz...)

4.2.3. Modernizatu eta egokitu azpiegiturak, berriak egin baino lehen, dagoen eremu naturalak ez okupatzeko.

4.2.4. Arratia barruko garraio publikoa sustatu hobeto antolatuz. Adibidez Arratia Lemoako trenarekin lotu. Lemoan kotxeendako aparkalekua, Arratiako kotxeak aparkatzeko.

4.2.5. Garraioari garrantzia eman instalakuntza bikoizketa murrizteko tresna legez.

4.2.6. Batzuetan azpiegiturak herrien arteko mugetan bihurtzen dira, beraz diseinatzeko orduan herrien eta herritarren dinamika aztertu beharko litzateke bertako funtzionamendua ez oztopatzeko.

#### 4.3. Eredu Logistikoa

4.3.1. Arratia mailan zerbitzu orokorrak elkartu.

4.3.2. Trenarekin lotura sustatu

#### 4.4. Energia

4.4.1. Tokiko energia sortzeko guneak eta laguntza (ekonomiko, tekniko..). Tokian sortu eta tokian kontsumitu.

### 5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea

#### 5.1. Genero ikuspegia, Osasuna, Euskara

5.1.1. Hazkuntza gehiegizkoak eragin latza dauka euskaran. Beharrezkoa da fenomeno hori ekiditeko neurriak zehaztea.

5.1.2. Arratian anbulatorioa edo urgentzietako beharra. Osasun azpiegiturak (ordutegia zabaldu)

5.1.3. Zabortegiak eta Cementoseko errauskailuak sortzen dituzten osasun kalteari erreparazioarako politikak, laguntza, etab.

5.1.4. Arratia arnasmune denez nolabaiteko laguntza izan beharko luke egoera hori mantentzeko

5.1.5. Hirigintzako erabakietan osasuna kontutan hartu. Osasuna zentzu globalean hartuta (aisialdirako guneak, kirola, etab.)

#### 5.2. Parte hartzea eta Gobernantza

- 5.2.1. Kalitatezko parte hartze prozesu bat bermatzeko beharrezkoa da: denboraz egitea, laguntzak egotea, gai guztiak lantzea eta herritarrentzako ulergarriak diren materialak eta tresnak erabiltzea. Eredu moduan, gaurko saioa kalitatezko prozesu batetik izatetik urrun legoke, denborari eta baliabideei dagokionez eta dauden parte hartzaileak politikariak direlako gehien bat.
- 5.2.2. Eskualde mailako egitura politikoak lurralde antolamenduko erabakitan parte hartu beharko lukete.